

# PARTE-HARTZE BIDEZKO AURREKONTUAK 2022

## ZER DIRA PARTE-HARTZEKO AURREKONTUAK?

Bilboko Parte-hartze bidezko Aurrekontua bilbotar guztientzat zabalik dagoen prozesu bat da, Udalaren aurrekontuaren zati bat zertan erabil daitekeen proposatu dezaten. Prozesu honetan, herritarrek aukera izaten dute urteko aurrekontuari buruz ideiak eta proposamenak aurkeztuz parte hartzeko, horretarako prestatutako fase bat baita. Bizilagunen batek ideiaren bat izanez gero, hori du unea.

Bilboko Udalak bi milioi euro bideratuko ditu Udalaren **2022ko** aurrekontuaren proiektua landu aurretik abiarazitako urtebeteko prozesuan jasoko diren proposamenetarako.



**AURTEN AZKEN  
PROPOSAMENETAN  
BOTOA EMATEKO  
AUKERA EGONGO DA**



# UDALAREN AURREKONTU PROIEKTUAN PROPOSAMENAK SARTZEKO PROZESUA



Bilboko bizilagunek proposamenak aurkezteko prozesu irekia 2021eko maiatzaren 13an hasiko da, eta lau fase ditu:

## > PROPOSAMENAK JASOTZEA (MAIATZAREN 13TIK 17RA)

Interes orokorrerako esanguratsuak diren proposamenak jaso ahal izango dira, hiri osoaren eremukoak edo barrutiaren eremukoak, eta Udalaren eskumenekoa den edozein jardun-arlori buruzkoak izan ahal dira, baina Barrutietako obrez eta hobekuntza-jardunez bestekoak lehenetsiko dira, zeren eta horiek badute beren prozesu propioa eta parte hartze bidezko aurrekontu bat esleitua (Auzokide Plana). Proposamenak dakarren zenbatekoa ezingo da izan 500.000 euro baino gehiagokoa, hau da, Parte Hartze bidezko Aurrekonturako ezarritako aurrekontuaren % 25a.

## > JASOTAKO PROPOSAMENAK WEBGUNEAN ARGITARATZEA (EKAINAREN 28A)

Jasotako proposamen guztiak argitaratuko dira, salbu iraingarriak edo baztertzaleak direnak eta pertsona bakarrak igorrita berdinak direnak. Horiek baztertuko dira.

## > SAILEZ SAIL AZTERTU ETA LEHENTASUNAK EZARTZEA (EKAINAREN 28TIK IRAILERA)

Udalaren sailek proposamenen edukia aztertuko dute. Prozesuan ezarritako irizpideak betetzen dituztenak, bideragarriak badira eta haien kalkulu ekonomikoa eginik ez badute gainditzen ezarritako gehienezko zenbatekoa, sailek lehenetsi egingo dituzte. Proposamenen arrazoizko kopuru batekin botazio eraginkor baterako aukera emango duen zerrenda bat osatzeko. kontuan hartuko dira, gainera, beste irizpide batzuk ere interes orokorrari jaramon eginez eta Udalaren estrategiarekin eta egokitasun-irizpideekin bat etorritik. Analisi hori eginik, herrita-

rrek bozkatu beharreko fasera igaroko diren proiektuak aterako dira zerrenda batean.

## > ZERRENDAK ARGITARATZEA ETA HERRITARREN BOZKETA (IRAILAREN 16TIK 26RA)



Behin bozketarako argitaratu beharreko zerrenda ezarritako irizpideen arabera egin eta gero, bozkatzeko epea hasiko da. Proposamen bakoitzari buruz honako informazio hau argitaratuko da:

- > Proposamenaren izena
- > Deskribapena
- > Atxikitako dokumentazioa (egonez gero). Eskabide bat aurkeztu duenak dokumentazioa erantsita, jakin behar du gerta litekeela argitaratzea
- > Gutxi gorabeherako aurrekontua
- > Non gauzatuko den jarduna (barrutia)

Bozketan, Bilbon erroldatuta dagoen edonork parte hartu ahal izango du, 16 urte baino gehiago baditu; bozketa Udalaren web orriaren bidez egingo da, pertsonako boto bakarra eman ahal delarik. Horretarako, inprimaki erraz bat prestatuko da, eta bertan baliozkotuko dira nortasun-agiria eta jaiotze-data, erroldaren bidez. Behin baliozkotzeak eginik, nahi adina proposamen hautatu ahal izango dira, baina ezingo da gauditu parte hartze bidezko aurrekonturako ezarritako zenbatekoaren gehienezkoa (2 milioi euro).

## > PROPOSAMEN LEHENETSIK AURREKONTU PROIEKTUAN SARTU ETA WEBGUNEAN HAIEN BERRI EMATEA

Botazioa amaitu ostean, zerrenda ordenatu bat aterako da, proposamen bakoitzak jasotako boto kopuruarekin. Era horretan, proposamenak hautatuko dira zerrenda horretan, harik eta aurtengo parte hartze bidezko aurrekontuetarako ezarritako gehienezko zenbatekora ahalik eta gehien hurbildu arte. Proposamen hautatuen kopurua, beraz, zehaztugabea izango da, hasiera batean.

Proposamen lehenetsiak Udalaren 2022ko aurrekontu proiektuan txertatuko dira eta, behin Gobernu Batzordeak onetsita, Web orrian argitaratuko dira.

Udalak proposamen guztien zerrenda argitaratuko du, adieraziz zeintzuk igaro duten analisi eta balorazio teknikoaren fasea, eta zeintzuk sartu diren 2022ko aurrekontu proiektuan eta zeintzuk ez, botazioaren ondorioz.

## PROZESUKO PARTE-HARTZAILEAK



1. Honako hauek parte hartu ahal izango dute proposamenak aurkeztuz:

- > Bilbon erroldatuta edonor, 16 urte baino gehiago baditu.
- > Bilboko Udalaren Herritarren Partaidetzako Entitateen Erregistroan izena emanda dagoen edozein entitate.
- > Edozein elkarte, fundazio, sindikatu, enpresari elkarte, lanbide-elkargo, zuzenbide publikoko korporazio edo beste edozein entitate, baldin eta antolamendu juridikoaren arabera nortasun juridikoa badu.

Azken kasu bi horietan ere eskari-egileek Bilbon erroldatuta egon beharko dute eta 16 urtetik gorakoak izan.

2. Honako hauek ere parte hartu ahal izango dute botazioan:

- > Bilbon erroldatuta dagoen edonor, 16 urte baino gehiago baditu.

## PROPOSAMENAK AURKEZTEA



Proposamenak Udalaren web orrian ezarritako inprimakiaren bidez aurkeztuko dira; hain zuzen, "Parte hartze bidezko aurrekontuak" atalean dago inprimakia.

Ahal dela, ez da egingo eskabide bakar bat hainbat proposamen dokumentu bakar batean erantsita. Beharrezkoa da proposamen bakoitzeko eskabide-inprimaki bat betetzea, zeren eta proposamen bakoitzari identifikazio kode bat emango baitzaio, aurkeztu duenak unean-unean zertan den jakin ahal izan dezan.

## JASO BEHARREKO INFORMAZIOA



1. Datu pertsonalak, eta entitate edo talde baten ordezkari izanez gero, entitatearen edo taldearen datuak.
2. Proposamenaren izena edo goiburua, eta deskribapen labur bat.
3. Proposamenaren gutxi gorabeherako kostua (ez da beharrezkoa).
4. Dokumentuak erantsi, egoki irizten bazaio.

Ez da beharrezkoa deskribapen tekniko konplexu bat egi-tea; proposamenaren deskribapen erraz bat ere aski izan daiteke.

## PROPOSAMENAK ZERI BURUZ EGIN DAITEZKEEN



Udalaren egiteko guztiei buruzkoak izan daitezke, baina honako hauek izango dutelarik lehentasuna:

- > Ekonomiaren garapena, merkataritza eta enplegua
- > Gizarte politikak
- > Kultura, euskara, hezkuntza gazteria eta kirola
- > Herritarren segurtasuna
- > Mugikortasuna, ingurumena, hiri-berroneratzea, etxebizitza eta garapen osasungarria
- > Hiri-plangintza eta proiektu estrategikoak
- > Zerbitzuak eta bizi-kalitatea
- > Herritarren arreta eta partaidetza
- > Jaiak, lankidetzak, bizikidetzak, immigrazioa eta kulturartekotasuna
- > Berdintasuna

Kontuan izan behar da, oster, ezen Barrutietako obrekin eta hobekuntza-jardunekin zerikusia duten gaiek badutela beren parte hartze bidezko prozesu propioa Auzokide Pla-

naren bidez, eta, beraz, proposamenek Udalaren eremuko gainerako gaiekin zerikusia izan behar dutela.

Proposamenak, gainera, ezin dira izan pertsona, entitate edo talde jakin batek egikaritzekoak, zeren eta, Udalaren aurrekontu proiektuan sartzen badira eta lehentasuna ematen bazaie, dagokion Udal Sailak egin behar baitu haien kudeaketa eta izapidetzea.

## PROPOSAMENEK BETE BEHARREKOAK



Oro har, Udaleko teknikariek honako hauek aztertuko dituzte proposamena baliozkotzat jotzeko edo ez jotzeko:

- **Udalaren eskumena.** Proposamena Udalaren eskumenekoa izan beharko da. Udalak jardun batzuk egin ditzake, baina beste batzuk beste administrazio batzuen esku daude.
- **Legezketasuna.** Aztertuko da ea badagoen proposamena gauzatzea eragozten duen araudirik, edo ea guztien onari kalte egiten dion edo ea baduen eduki iraingarririk edo baztertzailerik.
- **Garrantzia eta interes orokorra.** Proposamenak hiri osoaren, barruti baten edo gizatalde zabal baten onura izan behar du xede; ezin ditu izan xedetzat interes partikularrak.
- **Bideragarritasuna.** Aztertuko da ea alegazioa bideragarria den teknikoki, eta ea baden eragozpenik gauzatzeko.
- **Zenbateko ondorio ekonomiko dakarren.** Ahalegi- na egingo da proposamenaren kostua kalkulatzeko gutxi gorabehera, eta baztertu egingo dira parte hartze bidezko aurrekontuen prozesurako izendatutako zenbateko guztirakoaren % 25 baino kostu handiagoa dakartenak.

## EZINTASUNA GERORA AZALDUA



2022ko aurrekontu-ekitaldian zehar, Udalaren aurrekontuan sartu diren proposamenak egikaritu aurretik, gainerako aurrekontu-partiden kasuan bezala, kontrol eta azterlan gehigarri guztiak egingo dira. Aurrekontu proiektuan sartu aurretik alde aurreko azterlan bat egin arren ere, gerta liteke azken izapidetan azterlan gehigarriak agertzea, eta lehenago ikusi gabeko eragozpenak topatzea haietan. Hala gertatzen bada, informazio hori Udalaren web orrian argitaratuko da.

## PUBLIZITATEA ETA JARRAIPENA



2022ko aurrekontua behin betiko onetsitakoan, Udalaren web gunean argitaratuko da, Parte hartze bidezko Aurrekontuen atalean. Haren jarraipena egin ahal izango da aurrekontuen egikaritzeari buruzko txostenen bidez, zeintzuk aldiari-aldiari argitaratuko baitira Udalaren web gunean.

## ZEIN JARDUERATARAKO EZIN DEN AURKEZTU PROPOSAMENIK



Ezin da aurkeztu proposamenik gai hauetarako, besteak beste:

- > Langileak kontratatzeko gastuak
- > Lanak eta zerbitzuak egiteko enpresak edo autonomoak kontratatzea.
- > Familientzako, irabazi asmorik gabeko erakundeentzako, fundazioetarako eta enpresa pribatuetarako laguntzak eta dirulaguntzak.
- > Bekak, sariak, ongintzako laguntzak eta bestelako laguntza batzuk
- > Diru-sarrera publikoei buruzko erabakiak.